


ttipi-ttapa


1993.eko Otsailak 25

104. zenbakia

dohain banatzen da



**EROSKETAK EGITERA
KANPORA?**



E Z K A L O

JOSE ANTONIO ELIZONDO Jauna

INFORMAZIOA: 45 15 18 Tfnoan. • DONEZTEBE



DONEZTEBE

Pisua, lehen solairuan Iberduero bulegoaren gainean. Sukaldea, 3 logela, 2 bainugela, egongela eta 3 balkoi. Hegoaldera begira. **8.500.000 pzta.** negoziagarriak



NARBARTE

Pisua salgai Botika ondoan. Sukaldea, 3 logela, egongela, bainugela, despentsa eta 18m²tako bajera. 100m²tako baratzea. **9.200.000 pzta.** negoziagarriak edo 40.000tako alkilerria hilabeteko.



LESAKA

Bata bertzeari itxekiriko etxeak salgai. Bajera komertziala etagarajea lur azpian.



SUNBILLA

100m²tako p isua salgai. Gaztain eta haritzeko materialak erabili dira. Garajea, terraza eta ganbara. **12.000.000 pzta.** negoziagarriak.



IRAIZOZ

Luxuzko pisua garaje eta terrazarekin herriko alderik hoberenean. Bertako zurez egina, propanozko berogailua, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. **Prezio negoziagarria**



DONEZTEBE

200m²tik goitiko pabilioiak eraikiko dire hemendik gutxira. 30 m. zabal eta 6,5 m. tako altuera. **Prezio negoziagarria** Aukera bikaina.

BERA

Pisua alkilatuko nuke • Hutsa • 90 m² • 25.000 pzta. hilabeteko •

Pisu mobleztatua alkilatuko nuke • garaje eta terrazaduna • 100 m² • 45.000 pzta. hilabeteko •

SUNBILLA

Pisu mobleztatua alkilatuko nuke • 90 m² • 35.000 pzta. hilabeteko •

DONEZTEBE

Pisu mobleztatua alkilatuko nuke • 90 m² • 35.000 pzta. hilabeteko •

NARBARTE

Pisu erdi mobleztatua alkilatuko nuke • 30.000 pzta. hilabeteko •

ELGORRIAGA

Etxebizitza mobleztatua alkilatuko nuke garaje eta lorategiarekin • 50.000 pzta. hilabeteko •

ELGORRIAGA

Etxebizitza mobleztatua kafekazioarekin alkilatuko nuke • 40.000 pzta. hilabeteko •

LESAKA

Pabilioi industrialak alkilatuko nituzke • 500 m² • Prezioa negoziagarria •

ELIZONDO

Kotxe tailerra larrainarekin alkilatuko nuke, bi lagunendako egokia • Prezioa negoziagarria •

ERRATZU

Bi gela sukaldea erabiltzeko eskubidearekin alkilatuko nituzke • Prezioa negoziagarria •

ELIZONDO

Pisu hutsa salgai • 80 m² • 5.600.000 pzta. •

Haritz zurez moldatutako pisua salgai • Sukalde ekipatuarekin • 7.300.000 pzta. •

Bajera, ura eta argiarekin salgai • 25 m² • 3.200.000 pzta. negoziagarriak •

Txokoton bi bajera salgai • Batek 50 m² eta bertzeak 100 m² • Prezio farregarriak •

IRURITA

Pisua salgai • 140 m² • Egongelan tximeneta duena •

non - zer

-
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarfen agenda.
-
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/24** **HERRIZ HERRI**
 Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 25** **KIROLAK:** Eskualdeko kirolariak ongi Euskalerriko sokatira txapelketan.
-
- 26** **ERREPORTAIA:** "Herrian erosi edo kanpoan erosi", aukera prezioa eta kalitatea kontutan hartu behar.
 Aitor Arozena
-
- 28** **ELKARRIZKETA:** Patxi Oartzabal: "UBren lan estruktura eta udal-gestioa goitik behiti aldatu beharra zegoen".
 Joxemanuel Irigoien
-
- 30** **MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
 Tirada: 5.400 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
 31780 BERA
 Tfnoa.: 63 11 88
 Faxe: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernuua....

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

W Botikak

► **Otsailaren 27-28an**, Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Martxoaren 6-7an**, Etxalar, Doneztebe eta F. Elizalde (Elizondo).

W Hitzaldiak

► **ARESO**, martxoaren 5ean, arratsaldeko 3etan, «Izar-Gain» psikologo elkarteak emana. **Gaia:** "Hazkuntza: desira eta beldurrak".

W Deialdiak

► **LESAKA**, martxoaren 5ean, Euskara Batzordearen bilera.

► **IGANTZI**, martxoaren 5ean, Euskara Batzordearen bilera.

► **BERA**, martxoaren 9an, Euskara Batzordearen bilera.

► **ETXALAR**, martxoaren 10ean, Euskara Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, martxoaren 11an, Euskara Batzordearen bilera.

W Erakusketak**► SARA**

LEHENGO GAUZEN
AZOKA

Otsailaren 26, 27 eta 28an, Kirol Aterpean., goizeko 9,30etatik arratseko 7,30ak arte. **Antolatzaile:** Hazparneko Haize-Hegoa erakundea.

W Bertsoak

► **GOIZUETA**, martxoaren 8an, eskolan. **Bertsolariak:** Maddalen Lujanbio, Arantzazu Loidi eta Estitxu Arozena.

W Bota bertsoa**Amagoia SANSIÑENA**

Baztango Bertso Eskolakoa

Gaia: Emakumeen eguna**Neurria:** Zortziko haundia

Kasu guztitan nola edo hala asko dugu guk sufritzen gizonak aldiz ez du sekula samintasun hau pairatzen ia guztitan emakumeok galtzaile gara ateratzen elkartasunez saia gaitezen egoera hau aldatzen.

Gure indarrak elkarturikan egingo dugu ahal dena horrela froga genezakegu emakumeok garena modu horretan lortuko dugu amestuko garaipena honela behintzat azalduko da nor den hemen hoberena.

AGENDA

Zinema

► DONEZTEBE

Otsailaren 27-28an "La fosa común". Martxoaren 6-7an "Análisis final".

► LEITZA

Egunotan ez dago zine emanaldirik.

Ikastaroak

► DONEZTEBE

SOZIOLINGUISTIKA

Martxoaren 1, 3 eta 4ean, "Un futuro para nuestro pasado". Adorez eta Atseginez mintegia.

8an, "Euskara Euskal Herria eta Nafarroan". Joxe Angel Irigarai.

10ean "Euskara Bortziriak, Baztan eta Malerrekan. Komunikabide euskaldunak". Eusk. zerbitzuak. *ttipittapa* eta Xorroxin.

Gastronomia

AXOA - XURIA EZPELETAN EGITEN DEN GISAN

Osagaiak 4 lagunendako:

Kilo bat ahateki xehatua, tipul bat, 3 baratxuri hortz, 3 biper berde eztiak, arroltze gorringo bat, ditare bat ozpin, 2 edal unti salda (guti gora behera pinta laurden bat), olio, gatza, biper gorria.



Claudio AZPIROZek emana - SARA

Tipula eta baratxuria xehatu, biper berdeak puskatu eta

eltze batean jarri olioarekin xigortzen. Xigortuak direlarik ahatekia gehitu eta dena nahasi eta utzi 3 minutu egiten. Gatza puxka bat eta biper gorri bixia bota. Ondotik salda ixuri eta utzi oraino 5 minutu egosten. Azkenik ozpina eta arroltze gorringoa elgarrekin jo, bota eltzerat eta ongi higitu.

Utzi oraino su gainean 2 minutu eta on dagitzula.

Baserriko feria

► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 5.580 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 146pzta/kilo **Zerramak**: 60-80 pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....570
1.koa.....540
2.koa.....520

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....590
1.koa.....550
2.koa.....520
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 340 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 410 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 13.000 eta idixkoak 22.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 26.000 eta idixkoak 37.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUA

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

W 11 galdera ilabur



Luis Martin
Doneztebeko harakina

- ▶ **Klienteak, gizasemeak ala emakumeak nahiago?** Emakumeak, nere iriztziari kasu gehiago egiten diote.
- ▶ **Gazteak ala ez hain gazteak?** Ez hain gazteak, erosketa haundiagoa egiten dute.
- ▶ **Haragi hormonaduna saltzen al duzu?** Inguruan ez da holakorik izan.
- ▶ **Regateatu daiteke zurekin?** Hori kantidadearen arabera.
- ▶ **Zer da gehien saltzen duzuna?** Gehiena Baztan eta Malerrekako aretxia.
- ▶ **Afari ona egiteko bixigua ala solomilloa?** Lehenbizi arraina eta gero haragia.
- ▶ **Haragiarekin ardo beltza ala gorria?** Beltza.
- ▶ **Anekdotat bat?** Herri batetik bat hasi eta segidan 3 edo 4 etortzen dire.
- ▶ **Saltzaile onena, zu edo emaztea?** Ni neskekin eta bera gizon helduekin.
- ▶ **Haragia patatakin ala patata haragiarekin?** Hombre! Haragia patatakin.
- ▶ **Emakumeak nola, haragidunak ala guttikoak?** Pottoka-pottokak.


▶ Acción mutante

Alex de la Iglesia
Euskalerría - 1993

Alex de la Iglesia zinegile bizkaitarrak egin duen lehen luze-metraia ikusgai dago bertako zinema saletan. Almodovarren eskutik, akzio eta umorez betetako istorio harrigarria aurkezten digu amerikar estilo puru-puruan.

Gertakizuna XXI. mendean kokatzen da, pijo eta neska-mutil poxpolin eta lirainak nagusi direneko herrialde batean. Inguru honetan, ezindu, elbarri, begibakar eta itsusiek talde terrorista bat sortzen dute

Zinema



«Acción mutante» itsusiak batzen dituen talde terrorista da

“Acción mutante” izenekoa, beraien eskubideak defendatzeko asmoz. Lehen ekintza, ogi integralaren nagusiaren alaba sekuestratzea izan da. Hortik aintzinerara, filmean zehar egoera farregarri ugari ikusiko ditugu, efektu bereziekin ongi la-

gunduta. Aipatu behar da, gainera, pelikulan agertzen diren leku ilun eta bel-dugarriak Euskalerrikoak direla; barne irudiak Bizkaiko Ezker-raldeko fabrika batekoak eta kanpo irudiak Nafarroako Bardeetakoak.

Batzuk erranen dute, ame-

rikar itxurako filmea izateko pobre xamarra gelditu dela, baina zuzendariak lan hau egiteko zituen bitartekoak eta dirua kontutan hartuz emaitza arras ona izan dela onartu behar da. Euskalerrian egin diren filmeetatik hagitx ezberdina.

AITOR

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - **BERA**

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 - **BERA**

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

☞ Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deituz! Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55

BERA



Martxoaren 8an Emakume Langilearen Nazioarteko eguna ospatzen dela eta, berriki sortua den «Baztan-Malerrekako Emakume Taldea»k deia luzatzen die langabeak diren emakumeei egun horretan, martxoaren 8an, Doneztebeko lan enplegu bulegora joan daitezela langabetu zerrendetan apuntatzera.

ttipi-ttapa 92 urtekaria salgai dago azkenik



ttipi-ttapa 92 urtekaria aurki daiteke dagoeneko salgai herri gehienetako ohizko lekuetan, 1.000 pezeta edo 50 liberaren truk.

148 orrialde ditu liburu honek eta bertan 1.992an gertatutakoen berri ematen da herriz herri, argazkiak eta herri bakoitzeko jendearen elkarrizketa eta iritziekin. Honekin batera, nekazaritza eta lan munduari buruzko erre-

portai bana, «Musika gaur» eta «Zerbitzu publikoak» gaiekin Beran eta Donezteben egindako mahai-inguruen bilduma, eskualdeko kirol munduari errepasso zabala eta kultur agenda bete-betea izanen duzu ikusgai eta irakurgai.

1992ak eskualdean zer eman duen jakiteko liburu ederra eta zure liburutegirako nahitaezko dokumentoa, dudik gabe.

SOZIO-LINGUISTIKA IKASTAROA

NON? BORTEJRIAK SAZTAN ETA MALERREKAN



NOIZ? OTSAKA - MARTXOA BITARTEAN

Soziolinguistika ikastaroa hasia da dagoeneko. Hitzaldiak Donezteben izanen dira apirilaren 31a bitarte. Hamabostaldi honetan emanen direnak agendan aurki ditzazkeuz.

INFORMAZIOA:

- ✍ Nominak
- ✍ Aseguro Sozialak
- ✍ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✍ Enpresa berrien sortzea
- ✍ Diru-laguntzak
- ✍ Errenta Deklarazioak
- ✍ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



EMAKUMEEN EGUNA

Mende honen hasieran (1908ko martxoaren 8an) gizon batek, lan kontuak zirela medio, bere lantegian lanean ari ziren emakumeak kixkalita erre zituen.

Mende akabera hurbil dugu bainan iduri du gauzak ez direla sobera aldatu. Izan, badira oraindik ere aipatzeko gisako egoera latz bezain ilunak:

- Emakume adintu aunitzek ez dutenez gizonak bezala

lan-merkatuan parte hartu, ez dute aseguru sozialean kotizatu, beraz, pentsio mixerable bat gabe gelditu dira.

- Lantegietan, eskulan beharrak daudenean hartzen dituzte emakumeak eta eskasia dagoenean berriz, lehenbizikoak izaten dira atetik ateratzen.

- Emakume nekazarietara bertzerik ez dute izaten titularrak direla errekonozitzeko eta kotizatze-

- Gure etxe zo-

koetan ere, egunero ibili behar dugun bide neketsu horretan, guk emakumeok, gehientsuetan, pausu bat gehiago eman behar izaten dugu.

Kontuak kontu, makurrena da gutako aunitzek pentsatzen dugula hobe dela emakumeak lanik gabe egotea; bainan horrek ez du horrela izan beharrik !!!

Horrexegatik, emakumeak: martxoaren 8an, kontzientziakargarik gabe Doneztebeko INEM-era izena ematera

joatea animatzen zaituztegu; bertzenaz, egundaino ez bait zarete lanik gabeko pertsonak bezala kontatuak izanen eta gogoan izan: "Emakumea sortua dela gizona bezain iaioa".



Baztan-Malerrekako
Emakume Taldea

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

Masaia eta bizkortze ariketak

Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)

Astelehen, asteazken eta ortziraletan, 15,30etatik aintzinera
Astearte eta ortzegunetan, 9,30etatik 13etara eta 14,30etatik aintzinera
Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - BERA

NARBARTEKO HERRIKO OSTATUA

MENUAK eta KARTA

San Andres 1 • NARBARTE

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono hontera

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

APEZTEGIA BURDINDEGI BERRIA



Elizagibela 1, Tfnoa: 450994
DONEZTEBE

Kalderero konpartsarik ez ateratzea erabaki zuen Gure Txokoako Dantza batzordekideak

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Zenbait egunkaritarata bidalitako papera baten birtartez, Gure Txokoa Elkar-tearen Dantza Batzordekideak aurten Kaldereroen konpartsarik ez ateri izana justifikatu edo arrazoitu nahi izan zuen.

Erabakiaren justifikazioa «Jendea ez da agertu entsaiotara». Horixe da erabakia hartzeko kontutan hartu duten arrazoi nagusia.

Bertsolariak

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren final aintzineko kanporaketa Beran burutuko da martxoaren 28an. Bertso saioa Kultur Etxean burutuko da seguraski eta hauek dira ariko direnak: Manolo Arozena, Bittor Elizagoien, Jose Migel Argiñarena, Aitor Telletxea, Luis Etxeberria, Txomin Ezponda eta Txomin Amorena.

Postetxe berria argazkian ageri den etxe honetan kokatuko da. Oraindik ez dute martxan jarria baina denbora guti barne leku berri honetara pasatuko dira.




Liburutegia zabalik dago Kultur Etxean eta ikusten denez, ikasle dextente joaten da honezgero bertara beren lanak egitera

W ttipi-flash

- **Toki Ona** Institutoaren 25. urtemuga ospatzeko ekitaldien barnean, ikastetxearekin urteotan zetikuzia izan duten lagunarteko bazkaria ospatu zen otsailaren 6an. Guzira 450 lagun bildu ziren.
- **Suteak** direla eta, otsailaren 12tik 15a bitarte 3 aldiz ateratzea tokatu zaie Berako Suhiltzaile boluntarioei. Azkenekoan, Landagaitatik Larunaldeko larre batean izandakorra hogeitabortzen bat lagun bildu ziren. Goraipatzeko datua azken hau, gaur egun ez baita holako talderik biltzea.
- **Kultur Etxean** Donostiako Argazki Elkartearen eskutik eskeintzen den Argazki Erakusketa, otsailaren 26tik 28ra zabalik egonen da arratsaldeko 7etatik 8,30etara.

LOZOTEGI-JAIONE



Itzea 3, 630786 - BERA

**BOTXO
ostatua**

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

BORTZIRI
ASISTENZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, beheka - BERA Tfnoa: 63 10 91

LESKA

Arkupe elkarteak asanblada burutu zuen

Justo Agirretxe izanen da pilotazaleen lehendakari berria

AITOR AROZENA

Arkupe pilotazale elkarteak bere urteroko asanblada orokorra gauzatu zuen hilaren 13an.

Bertan, iazko kontuen eta antolatutako eta parte hartutako ekitaldien berri eman zen. Bertzeak bertze, Espainiako Club arteko txapeldunak izan ziren, eskuz banaka eta binaka, bigarren mailara igoz. Baita ere, Jesus Mari Almandoz Espainiako eskuz banakako txapeldun izan zen jubencil mailan.

Zuzendaritza Batzorde berria ere aukeratu zen. Lehendakaria Justo Agirretxe izanen da, bokalاک Salvador Etxepare eta Esteban Maritxalar, bodegeroa Periko Maia, diruzaina Francisco Zapirain eta idazkaria Ramon Etxenike. Urte honetarako 1.150.000 pezetatako gastua aurreikusitako zen.



Pilota eskola da Arkupe elkarteak bultzatzen duen ekintzetariko bat, Salvador Etxepare irakaslearen gidaritzapean

ARTIBOIA

San Fermin Jubilatutako elkartearen asanblada hilaren 27an

San Fermin Jubilatutako eta pentsionista elkartearen urteroko ohizko batzarra burutuko da hilaren 27an, arratseko 6etan Jubilatuen egoitzan.

Tratatuko dituzten gaiak, iazko kontu ematea eta ekitaldien memoria, kuoten errebisioa, eskaerak eta galderak izanen dira.

Bertzalde, martxoaren 5ean Xabierreko gaztelura joateko asmoa dute San Ferminetakoak. Txartelak 2.500 pezetatan (bidaia eta Javier hotelean eginen den bazkaria) salgai daude ohizko lekuetan. Opariak ere zozketatuko dira. Irteera goizeko 8etan eginen da plazatik autobusean.

ttipi-flash

- Enderlatsako Etxetxuri baserri inguruan udan pilotzen den zabor pila dela eta idatzia presentatu dute arrantzaleek. Ondorioz, bertan akanpatzea, sua egitea eta zaborra botatzea debekatuz letreroak paratuko dira.
- Ski kanpainan 48 neska-mutilek eman dute izena, 28 Irain eskolatik eta 20 Tantarumairutik. Udalak, bere aldetik, 2.500 pezetatako dirulaguntza eman du ikasle bakoitzeko.



Saharari buruzko argazki eta He-goamerikako eskulanean erakusketa izan zen Arrano elkartearen

LORA DENDA

TXIRULA
 Bittiria LESKA
 Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza
 Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
 Tfnoa.: 63 71 27 LESKA

XATURETXEA
FONDA
 Tfnoa.: 63 70 27 LESKA

XABIER Ileapaindegia
 Egunero Irekia
 Tfnoa: 637034 - **LESKA**

ARRANO

OSTATUA
 Legarra - **LESKA**

Bide berri dexente ireki dira azken urteotan

Honek zaharrak uztea edo abudo xamar ixtea dakar

PELLO APEZETXEA

Azken urteotan bide berriak ausarki ireki dira menditan, gehiegi behar-bada. Berriak irekitzean, zaharrak utzi eta galdu egiten dira zenbaitetan, halabeharrez. Bertzetan, ordea, bide zaharrak baliotsu izaten segituagatik, aisa samar itxi egiten ditu norbaitek; azken hauetako bat, Bekolandan barrena Santakruzera doaiena.

Urez hobeki hornitu beharrean gaude

Nafarroako Gobernuak dioenez, Etxalarren ura aski bada baina ez behar bezain ona; ur banaketako tuberi nagusian ere bada hobetu



Argazkiak: PELLO



Ortzegun Gizen egunez etxez etxe ibili ondoren, urteroko antzerkiak eskeini zituzten neska-mutikoak

beharra. Dena den, uraren nahikotasuna Artaineko erreka hartuz segurtatzen da, ez bertzela; eta hori luzatu gabe egitea proposatu du Gobernuak, 14 milioi t'erdiko kostua izanzen duena, zera alegia: Artaineko erreka ura hartzea, berau garbitzeko instalakuntza, eta banaketa sare

nagusia hobetzea. Udalak, hala ere, argibide gehiago espero du Gobernuarengandik, obratan hasi baino lehenago.

Iazko gorabeherak

Sei izan ditugu jaiotakoak eta zazpi hildakoak 1992. urtean zehar. Zortzi ezkontza ospatu badira ere,

bertan bizi zirenenak lau izan dira, beraietatik hiru bikote herrian bizitzen gelditu direnak.

□ Bidasoa Kultur Zerbitzuak egitasmo edo proiektuari onespena eman dio Udalak. Batzordeetan beronen ordezkariak ere egon behar duela adierazi du.



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

SAROB
okindegia 
SANDERS Pentsuak
EZTEGARA 41, TFNOA: 63 08 99 - BERA

ONIN
Agentzia
Albistur 53, = 637359 - LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zunzarren-en kolaboratzaileak

KOXXKONTA

 **Sagardotegia ZABALIK**

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

IGANTZI

Iñauterien ondotikan, denok serio serio lanera

Biltokik, bere aldetik, urteroko asanblada egin zuen

OSKAR TXOPERENA

Aintzinekoan erran bezala, otsailaren 6an bildu ziren Biltokiko gazteak bilkura nagusian. Gaiak aipatuak gelditu ziren, baina ez da gehiegizkoa izan erabakiak ere erratea. Igantziko bizian pisu handia baitu Biltokik. Zenbait gai arrunten ondotik kontuen ordainketen arazoa moldatzeko puntuan dagoela erran zuten Juntakoek. Gai garrantzitsua baita ere Biltoki ttikikoa. Honetan onartu egin zuen asanbladak gaztetxoei gehiago laguntzeko proposamena eta juntako bi lagun beraiekin elkarlanean aritzekoa ere. Bestetan ostatuan musika paratzea ere



Hemendik aintzineraz gaztetxoei laguntza gehiago ematea erabaki zuen Biltokik

onartu zen eta baita ere, elkartera maiz sartzen diren igantziarrei karta bat sozio egiteko gonbidatuz bidaltzeko erabakia hartu zen. Azkenik, juntako lau partaide berriak aukeratu ziren: Lourdes Zugarra-

murdi, Itziar Iguzkiagirre, Maite Zelaieta eta Oskar Txoperena. Denetara hiru ordu pasatxo.

□ Nafarroako «Oinarririak» taldeak bidalitako idatzia onartu zuen udalak. Laburbilduz, idatzi hone-



Hogeiren bat neska-mutil ibili dira aurten mozorrotuta

tan euskara Nafarroa osoan ofizial izatea eta Nafarroa osora hedatzeko neurriak hartzea eskatzen da.

□ 99 urte bete zituen Patxiku Iriberekoak otsailaren 20an. Aunitz urtez eta bertze aunitz bete ditzala.

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



MANOLO
TABERNA

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

Ortzegunetik igandera ospatu ziren Iñauteriak

Aipagarria mozorroen lana, puxka biltzen aritu baitziren hiru egunez

MIRARI eta MARTA

Otsailaren 4ean (ortzeguna) hasita eta hilaren 7a bitarte (igandea) luzatu dira aurtengo Iñauteriak, beti bezala umorez gainezka.

Lehenbiziko egunean, urtero bezala, herriko atsoek beren eguna edo gaua izan zuten, afariarekin ospatuz, aurten Burlada jate-txean. Ortziralean, buzoz jantzi eta Gregoriorekin dantzaldia izan zen, baita ostatz ostatu giroa alaitzen ibili zen Joakinekin ere: herriko giroa nagusi. Larunbatean, arratsalde haur txikien mozorro lehiaketa eta gauez Izadi taldearekin dantzaldia. Uste baino jende gehiago bildu



Iñauterietan giro polita izan zen aurten ere. Mozorroak, afariak, dantzaldiak... kanpotik ere jende dexente etorri zen

zen, bai mozorrotua eta bai mozorrotu gabe. Igandean, berriz, goizean aizkol apostua polita izan zen, bertan Donato Larretxea eta Mikel Mindegia nafarrek nahiko errex irabaziz

gipuzkoarrei. eta ondotik Aterpen bazkaria Egaña eta Muruarekin.

Bukatzeko, arratsalde eta gauez, Gregorio aritu zen akordeoiarekin. Ez dugu ahaztu behar mozo-

roen lana, aurten 15 bat laguneko koadrila ortzegunetik hasi eta larunbata arte, herri guztian zehar etxez etxe puxka puxkan ibili bait ziren.

Mozorro ttikiak ere, nagusien bideari jarraipena ematen hasi dira.

Garbiketa lanak

Aurten ere eskola eta mediku etxeko garbiketa lanak eginen dituen Maria-txu izanen da.

Gripea zabaldu da

Ez dakigu Iñauterietako ondorioz edo baina gripea zabaldu omen da herrian barrena. Eztula eta sukarra nagusi. Zaindu oraindik harrapatu ez bazaitu behintzat.

LAINO

%30eko DESKUENTOAK

San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

IRAGARKI HAU 5.400 ETXETAN SARTUDA

ZURE ERE SARTUKODA

PUBLIZITATERAKO

tipi-ttapa ERABILIZGERO



ATERPE
jate-txea

Tfnoa.: 63 41 79

ARANTZA

NATUR ETA ESKU TERAPIA

QUIROPRAKTIKA

Sendatzeko modu naturala da. Interesatzen bazaizu deitu telefono hontera:

☎ 45. 16. 42



Inzakardi 3 - 1. A eta B - **DONEZTEBE**

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO
BIDAIK

- ✗ HERRIAK
- ✗ MENDIAK
- ✗ TURISMOA
- ✗ TREKING eta BIDAI ALTERNATIBOAK

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADUANEA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUIN

SUNBILLA

Urristibil baserri errearen alde dirua biltzeko

Udalak kontu bat ireki du Nafarroako Aurrezki Kutxan

IOSUNE ETA IXABEL

Urristibil baserriaren alde norbaitek diru laguntzarik eman nahi badu, Nafarroako Aurrezki Kutxan aurkituko du libreta bat horretarako irekia. Iniziatiba Sunbillako Udalak hartu du, eta izan ere, 100.000 pzta. emanaz ireki du.

Ordezko sekretarioa

Manolo Irigoien, Sunbillako idazkari edo sekre-

tarioa ikastaro batean dagoela eta, hilabete batzuz (maiatza bitarte) M^a Jose Larraioz urrotarrak beteko du bere postua. Ordu-tegia, arratsaldeko 4etatik 8etara izanen da.

Pistak egiteko laguntzak

Istola, Mendaur aldera eta Arantza alderako pistak ormigoiztatzeko Nafarroako Gobernuak 9,6 milioietako dirulaguntza luzatu dio Sunbillako udala-



ri, kopuru osoaren % 20a, zehazki errateko. Lan hauek Mariezkurrenak egiten ari da

ERATSUN

Iñauteak protagonista

L. M. RETEGI

Anbiente onean pasatu ziren iñauteak urtarrilaren 22, 23 eta 24ean. Lehen egunean afaria eta dantzaldia izan zen Modestorekin. Larunbatean, herri bazkaria Lizaso eta Agirre bertsolariekin. Hauekin batera, Modesto izan zen bazkalondoa alaitzen. Arratsaldean, etxez etxe ibili zen jendea mozorro-



Gisa honetan ibili ziren bertsolariak akordeoiaren laguntzarekin

turik eta bertso afarira 68 lagun bildu ziren. Segidan Modesto aritu zen goizal-

dera arte, ondoren ederki gosaltzeko.

Igandea, egun lasaiagoa

izan zen eta iñauteiak bukatzeko bazkaria eta dantzaldia arratsaldean.

LABAIENGO OSTATUA

Pentsio osoa

Sukaldaria Julieta andrea

Tfnoa: 450055 - LABAIEN



CATERPILLAR MIXTA - 428

450286 ARTZE - DONAMARIA

SASOI EXKABAZIOAK

Ur ekarpen lanak ofizialki bukatutzat eman dira Oitzen

Plantazioetan, bertzalde, 7.000 bago eta 600 haritz sartu dira

OITZ

Oitzen egin diren ur ekarpen obrak bukatutzat eman dira "fin de obra" egin ondoren. Subentzioa % 30ean haunditu dute Nafarroako gobernutik, kostea ere nabarmenki haunditu baita. Guzira, 16.800.000 pezetatakoa izan da gastua, 12.150.000 pezeta dirulaguntzen bidez lortu badira ere. Modu honetara, herriko auzo eta baserri guztietara iritsiko da ura, herriko ur-sare beretik hornituz.

Ezpelak hartzea debekatua

Kanpotarrek Ezpeldegitik ezpelak hartzea debekatua dute eta bertakoak, beraientzat bada debalde izanen dute eta saltzeko bada, Tonako 2.000 pezeta ordaindu beharko dute. Aipatu behar da, Ezpeldegian bertan mendi oihana

saldudela. Juan M^a Barberenak erosi du 6.400.000 pezetatan, hasieran enkantean ateratakoa baino % 8a merkeago.

□ **Latasa** baserrira bidea egiteko 5.352.769 pezetatako dirulaguntza hartu da Nafarroako gober-

nutik. Aurrekontu osoa, berriz, 7.646.814 pezetatakoa zen.

□ **Plantazio** eta mendi garbiketendako 5.600.000 pezeta gastatu ziren herrian iazkoan, honetarako dirulaguntza 1.972.000 pezetatakoa izan den bitartean.

Plantazioetan, 7.000 bago eta 600 bertako haritz sartu dira.

□ **Euskararen** plan-gintza onartu da Oitzen. Inguruko herrietan ere (Donamaria, Urrotz eta Beintza-Labaien) bertze horrenbertze egin dute.

Donamariako pala txapelketan izen emateko epea hilaren 28an bukatuko da

PELLO ETXEGIA

Iaz antolatu zen lehenbiziko aldiz pala txapelketa. Izan zuen arrakasta ikusi eta, aurten ere jokatzeko aukera izanen da. Apuntatu nahi duenak hilabete honen 28a arte izanen du epea eta martxoaren 7an hasiko da txapelketa, bai lehenbiziko mailan etabai bigarrenen. Dagoeneko, bikote saila apuntatu da, ea nor izaten ditugun txapeldun.



Joan den asteburuan inauteriak burutu ziren. Herriko ostatuan egindako afarian animazio nahiko izan zen, Onofroren soinua eta argazkiaren eskuinaldean dagoen Patxiaren bertsoei esker

FOTO MENA
ELIZONDO

Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
ORDU BATEZ
ERREBELATUAK
ditugu

OYARZABAL EXKABAZIOAK

Zimentazio,
Bide moldatze
eta bertze
edozein lan

Tf.: 450755
DONEZTEBE



ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

5.400 harpidedun
18.500 irakurle

DONEZTEBE

Etxeko zabor eta hondakin ugari bide bazter eta erreketan

Mendietako zeladoreak eta Bidasoa-Berroarango guardak denuntzia sartu dute

TXEMA ALDABE

Doneztebe eta Male-rrekako edozein bide eta erreka bazterreko zabor pilak ikusteak, argi aski erakusten du ze mailatan gauden ingurugiro eta osasun publikoari dago-kionez. Egoera moldatzea guzion kontua da, jakina, herritar eta erakunde pu-blikoena.

Donezteben bandoa

Mendietako zeladoreak eta 'Bida-

soa-Berroarango' guardak denuntzia bat eginez sartu-tako idazki baten aintzi-nean, Doneztebeko udal-batzak bando bat argitara-tzea erabaki du. Bandoan «baimenduta ez dauden lekuetan hondakinak botatzea galerazita» dagoela jakinerazten du, eta aldi-berean zera eskatzen dio albinteari: «gertaera ho-rien berri duenean salatu ditzala».

Bandoaz aparte, «Do- neztebeko hondakinak modu kontrolatu batean biltzeko leku egoki bat bi- latzeko» erabakia ere hartu du Doneztebeko Udalak.

□ **Herri Garapene- rako** Agente bat kontrata- tzea erabaki du Udalbatzak. Soldata Gordina 4.000.000 pztatakoa izanen du eta INEMi diru-laguntza es- katuko zaio.



Doneztebeko DYA elkarteko kideak

Irregularitasunak mataderoaren erabileran

T. A.

Hiltegia bisitatu on- dotik Osasun Inspekto- reak udalari bidalitako aktan ageri denez, osasun eta garbitasun baldintzak nabarmenki hutsegiten omen dire hiltegi hone- tan, eta zehazki aipatzen denez, egun batzuk zera-


maten «azinda barren- kiak» omen zeuden bisit- aldia egin zuenean.

Hiltegiaren funtziona- mendu egokia udalaren ardura denez, udalbatzak idazki baten bitartez hil- tegia erabiltzen duten guziei zera jakinerazi die: «higiene eta osasun bal- dintzak zehatz bete di-

tzatela, bertzenaz, beha- rrezkoak diren neurriak hartu beharko baitira».

Zentzu horretan, hil- tegiko atearen zerraila aldatzea erabaki zuen baita udalbatzak, eta he- mendik aintzinerara albin- tea arduratuko da ordute- giaren arabera atea ideki eta ixteaz.

ITXASO ARRAINDEGIA



ARRAIN FREXKUAK

ENKARGUAK HARTZEN DIRE



Tfnoa: 451641

Karrika Nagusia • DONEZTEBE



OTORDUAK • LOGELAK

Tfnoa: 450793

Iñotien ondotik, zer? Esperun, baina ez geldirik!

JUAINAS

Pakita berak montaje galanta egin behar izandu zuen **motoa falta** zuela eta... nonbait, asteazkenean berastegitar bati, etxera bueltatzeko—“behar zuelako”—hartzea besterik ez bait zitzaion bururatu. Okurritu eta egin, aizu! Susmoa segituz, bila eta hartzea, jabeari tokatu zitzaion. Gustatuko litzaidake han esan zirenak idaztea, ez dut ikasi baino...! Aditzeko modukoa, fijo!

Galantak geratu direnak **pistak** dira. Majo benetan! Hau irakurri orduko buka-



Iñotik prestatzen ari zirela hara hor pare bat argazki, adinez banatuak

JUAINAS

tuak egonen dira, hagitz gutxi falta bait zaie, gaur. Behar bada lanean aritu direnak bukaera eta guzti ospatuko zuten, ondarreko plenoan alkateak eskatu-

tako afarria onartu bait zen.

Baino lanaren mundua ez da hor bukatzen eta gerorari begira... Herrian euskeraren aldeko talderen bat sortu nahian... ikasi

behar dela eta... erdixka, txandaka eta ahal duten moduan zubiatar dozena erdi bat **Soziolinguistikako ikastarora** apuntatu da. Uy-uy-uy-uy...

URROTZ

Iñaute arrakastatsuak

TXEMA URROTZ

13 urte pasatu ondoren iñauterik egin gabe nahiko ongi hasi dugu etapa berria, behintzat jendeak nahiko iritzi ona eman du. Gazte mordoa animatu zen eta garrantzitsuena parte hartzea izan zen alaitasun eta umore ederrean. Jendez betetako gurdi bat baserri baserri puskak biltzen ibiltzea izan zen dudarik gabe deigarriena. Hurrengo urtean berriz eta hobekiago.



SANTAMARIA

Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



ARROPA ETA OPARIDENDA

Tfnoa: 451540

Mercaderes 9

DONEZTEBE

GOIZUETA

Arkupeak elkartearen deialdia herriko jubilatuei

Umore Ona elkarteak, bestalde, urteroko asanblada burutu berria du

ESTEBAN AROZENA

Arkupeak elkargoak deiturik bi bilera egin dituzte dagoeneko Goizuetako pentsionista eta jubilatuek, inguruko beste 37 herrietako zaharrek batera talde horretako partaide izan daitezzen gonbidapena luzatuz. Horrela, Arkupeak antolatzen dituen ekintzetan, bidaiak, etabar, parte hartzeko aukera izango lukete.

Dena den, eta orri honetan gehiegi luzatzerik ez dugunez, Milagros Apezetxea, Antonio Apezetxea edo Ceferino Etxegiarengana jo dezakete interesatuek, informazioa jasotzeko.



Emakume bertsolariak izango ditugu berriz eskoletan martxoaren 8an

ARTXIBOA

□ **Umore-Ona** elkarteak ohizko batzarra burutu berria du. Mikel Elizegi, Xabier Mikel Huizi eta Ximon Apezetxea dira zuzen-

dari-juntako kide berriak. Horretaz gain aipagarria da, bazkide berrien zerrendako zazpi gazteek baietzko botoa jaso zutela.

□ **Martxoaren 8a**, Emakumeen Eguna da eta ospakizun hori aprobetxatzeko asmoa dute eskolakoek. Ekintza nagusia bertso saioa izango da eta Maddalen Lujanbio, Estitxu Arozena eta Arantzazu Loidi kantari izango ditugu.

□ Duela bizpahiru urte, herritar talde batek antzeztu zuen **“Goizuetan bazen...”** antzeslanak jarraipena izan du, 8. mailako haurrek berreskuratu baitute obra hau. **“Patxo”**, Iñigo eta Anaren zuzendaritzapean emanaldi batzuk burutu dituzte eta beste hainbat egiteko asmoa ere badute.

ARESO

Iñauteriak umore onean bukatu zaizkigu

JUANA MARI SAIZAR

Ostiralean umeak izan ziren protagonista. Arratsaldean eskolatik atera zirenean, denak indioz mozorrotuak, hiru indio-etxe egin zituzten plazaren erdian. Joku baten bidez altxor bat (txistorra) bilatu behar zuten. Bitarte honetan, guraso batzuk sua egin zuten lurrean, eta parrilla bat jarrita ogitarteko mordo bat banatu zituzten nahi zuen guztiarentzat. Gero, gauean, afari eder bat zegoen umeak antolatuta. Beraiek bildu



Umeak indioz mozorrotu ziren

Arg. Juana Mari

zuten dirua, bai Eguberritan eta bai Santa Ageda egunean abesten. Beste bi egu-

netan, ezer berezirik ez zen suertatu, baina ahaleginak egin behar ditugu ohitura

zaharrak berreskuratzen. Igandean, eske egunean, etxe guztietan egiten zen gonbidapena txokolatea hartzeko arratsaldean, nahi zuen guztiarentzat. Ohitura hau galdu zen aspaldiko urtetan baina ea nola lortzen dugun berreskuratzea.

Hitzaldien egunak

«Izar-gain» sikologo taldeak Guraso elkarteak antolatuta emango dituen hitzaldiak martxoaren 5ean, apirilaren 2an, maiatzaren 7an eta ekainaren 4ean izango dira. 3etatik 5ak arte. Puntueltasuna eskatzen da.

Fermin eta Kandido Azpiroz eta Angel Alduntzin zena Arriben omenduak

JOSEBA AZPIROZ

Otsailaren 7an, Arribeko Elorri elkarteak Angel Alduntzin zena, Fermin eta Kandido Azpiroz eta Lizartzako Kaxiano omendu zituen. Meza nagusia ospatu zen eta atabalero-txistulari izan zen Klaudio Azpiroz zenarentzat ere hitz batzuk eman ziren. Ondoren, Arraitzko dantzariak saio polita eskeini zuten. Bazkailondoan Lazkano eta Gorrotxategi bertsolariak aritu ziren. Kandido, Fermin eta Angel zena, duela 50 urte hasi ziren Gorritin barrena oinez Arribera joaten eta 25 urtez segitu zuten hango pestak alaitzen. Urte asko pasa badira ere oraindik alaitsu daudela erakutsi zuten, batez ere Kandido eta Kaxianok, kafearen ondoren txiste kontari arituz.

Aurreran batzarra

Larunbatean 27, arratsaldeko 7etan ohizko ba-



Kandido, Fermin eta Angel zena 25 urtez ibili ziren Arribeko pestak alaitzen

Arg: JOSEBA

tzarrea burutuko da gai hauek aztergai daudela: Azken akta irakurri eta onartzea, 91-92ko kontuen azalpena, junta berritzeko deialdia, galderak eta eskakizunak. Gaien garrantzia ikusirik, joatea eskatzen da.

Arazoak zineman

Zinema batzordeak gero eta jende gutxiago joaten dela kontutan hartuz eta diru arazoak sortu direla ikusi-

rik, oraingoz ixtea erabaki du. Batzordea prest legoke lanean segitzeko Udalak diru ardura bere gain hartu eta aurrerantzean funtzionamendurako araudia jarriko balu. Edozein moduz, erabakia udalaren esku dago eta biharko batzarrean (26) horretaz hitzegin behar dute.

Beira eta kristala...

biltzeko ontziak jarri zirenetik eta inauteriak arte

3.865 kilo bildu ziren. Egia da Eguberriak tartean zirela baina halere botila hutsak izateko kilo asko ez ote dira?

Sarrion...

komiteko ELAkoekin negoziatu ondoren Sarrionapelek aurkeztua du enplegu erregulazioa Lan Ordezkaritzan, produktu asko daukala biltegietan eta eskakizun gutxi egiten dizkiotela esanez. LABekoek alegazioak aurkeztu dituzte formazko akatsak azalduz eta hau idazterakoan ez da ezagutzen erantzunik. Batzarreak, zineman bilduta (enpresak ez zien utzi lan ordutan egitea) erabaki zuen enpresa-batzarre baten deialdia egiteko behar diren sinadurak biltzea, horrelako erabakiak komiteak edo batzarreak erabaki behar duen ikusteko. Borondatezko jubilazioei dagokionez berriz, 60-62 urtetako 12 langile jubilatu dira.

SAGASTI Jatetxea

Bokadilo goxoak eta paregabeko bazkariak

Tfnoa: 610637 - LEITZA

PITXIK Denda

Arropa eta Opariak

Tfnoa: 510022 - LEITZA

ETXEBE

ILEAPAINDEGIA
GIZONEZKOENTZAKO

Elbarren - LEITZA

ADUR TABERNA

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 610864 • LEITZA

GAZTELU FONTANERIA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32

Tfnoa: 510086

LEITZA

BAZTAN

Eguraldi idorrak lagunduta, sute garaian sartuak gaude

Bildotsa, bertzalde, sekulan baino merkeago ari dira saltzen

JOSEBA IGARABIDE

Aurtengo negua idorregi ari da gaten eta ia-ia urtero bezala, beharbada pixka bat beranduago, jendea hasia da 'jo ta ke' suari ematen. Larre eta arbola dexente kixkali dira honez gero Baztango xoko guzietan barrena. Eguraldiasosin honetarako ez da normala izanen baina suteak ordea bai.

Kiloa 300 pztatan

Bildotsaren kooperatibakoek beti gehixeago ordaintzen badute ere, izan badaude kiloa 300 pztatan saldu dutenak ere. Arras merke. Ez da aspaldiko urtetan hain guti ordaindu bildotsa. Gainera, kanpotik pilaka ari dute sartzen – Frantziako Akitania aldetik, Britaina Haunditik, Zelanda Berritik – etakonpetentzia izigarria da. Bistan denez, haragiaren komertzializatzeko sareak hemen baino aisa hobeki antolatuta dituzte atzerritar nekazariak.

Iñauteriak...

bertzalde, heldu den urterarte agurtu ditugu. Orabidea aldean urtarrilaren 8an izan zituzten berenak. Gerroztik Irurritako errekan,



Ez da aspaldiko urtetan hain guti ordaindu bildotsa. Izan badaude 300 pztatik/kiloko bizirik baino kobratu ez dutenak.

Basaburua aldean... eta azkenekoak Arizkun, Erratzu, Elizondon...


Arraiozko frontoia

Pilotaleku estalia egiteko behar diren lurren permuta lehenbailehen egitea eskatu zuen Union Baztanesa-Baztango Elkarteak mozio baten bitartez. Zentzu horretan UBk gogorazten duenez, 1988ko azken Junta Generalak onartu zuen iada permuta hori egitea. Bertze puntu batean, berriz, proiektua egitea eta 1993ko udal-aurrekontuetan diru partidabat horretarako gordetzea ere eskatu zuen, obraren erdia

bederen aurrean egiteko. Mozioa ahobatez onartu zuen udalbatzak.

W ttipi-flash

□ Nafarroako Gobernuak, **Baztango ur horniduraren** gestioa Udalaren esku izatea gomendatu du. Gaur egun dauden 60 ur depositoen gestioa herrietako alkateek eta auzoetako elkarteek egiten dute, eta zentzu horretan, Jesus Arlaban Herri Administrazioarako zuzendariaren ustez, ardura hori udalak hartu beharko luke edo bertzenaz Iturri Ederrak. Egindako estudioan ageri denez Baztanaldeko jendearen %10.8ak ur-murrizketak ditu udan.



Arraiozko Jauregi-zaharrea dorretxea interes kulturalerako momentu izendatu berri du Nafarroako Gobernuak.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Udaberriko arropak eta telak

KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

Aurtengo ñauteak joan dira

Denetarik ikusi dugu egunotan

PABLO MENDIBURU

Oraindik ñauteetako bestondoarekin gaudela, aurtengo giro ona aipatuko dugu. Almandozen hippi talde bat agertu zen. Ikusiko bazenituzte!. Zigan berriz, beltzak, amerikarrak, ijitoak, emakume kuttunak eta gehiago ikusi genituen. Haurrek ere beraien eguna gustora pasatu omen zuten: ibilaldia jokuak, txokolata-da, etabar...

Berri beltza

Aniz denbora guttiz bi lapurreta izan dira. Lapurrak bi etxetara sartu dira eta batetik gauza dexente eraman ere. Zigako Egozkue palaziora ere sartu omen ziren, horregatik kontuzibili.

Neska sokatiralariak Galesen

Aipatu bezala herri kirol taldeko neska batzu Galeseko Cardiff herrian daude munduko sokatira txapelketa jokatzeko. Euskadiko txapelketa mutilekin batera parte hartu dute eta orain Galesera. Aipatu behar meritu haundia dutela, bidai hau egiteko dirulaguntza gutti hartu bait dute. Berriozarreko neska batzuekin osatu beharra dute taldea. Animo!



M^{ra} Dolores Mirana **TOPOGRAFIA**
NEURKETAK • PLANOAK
 Lur neurketak
 Luberriak
 Landaketak, etab.
 Santiago 68. 3. Esk. - 580143 • ELIZONDO

KIWI BAZTAN, S. A.
FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN ZUZENEKO SALMENTA
 MINDEGIA eta BULEGOAK:
 Sutegia Etxea
 31795 LEKAROTZ
 ☎ (948) 58 11 01
 Fax-a: (948) 58 11 01

FZ
FOTO ZALDUA
ZURE EZKONTZARAKO
FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat
 ELIZONDO ☎ 580491
 DONEZTEBE ☎ 450364
 MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN
 DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
 121 errepide nazionala, 54. km
 Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

URDAZUBI

Karriketako argiteria berriztatzea onartu da


'Electricidad Fija' enpresak egindako eskeintza izan da merkeena

ALIZIA OLAIZOLA

Bortz enpresek aurkeztuak zituzten beren eskeintzak, eta guzietan merkeena Lizarrako 'Electricidad Fija'k eskeinitakoa suertatu da. Modu horretara, karriketako argi berriak jar-tzea 13,6 milioi pezeta kostako da.

□ *ttipi-ttapa*ren gastue-tan laguntzeko 50.000 pe-zeta ematea onartu du Urda-zubiko Udalak.

□ **Otsailaren** 6ean la-runbat arratsean, Baztan, Zugarramurdi eta herriko ehiztariak elgarretatu ziren



Urdazubiko udalak Bertizko Turismo Konsortzio-an sartzea erabaki du. Francisco Iribarren alkatea izanen da Udalaren ordezkaria Kontsorzio horretan.

Urdazubin Bautista Aristia eta Miguel Azkarragaren alde meza ateratzeko, biak ihiztariak eta berriki hilak.

□ **M^a Clara Iribarren,**

Iribereko Tontxeneakoa otsailaren 12an hil zen, 98 urterekin. Abuztuan beteko zituen 99 urte. Maria Cla-raren adinekoa zen baita

Francisca Barberenekoa, Iribere auzokoa baita, 98 urterekin hil zena, 91ko abenduaren 15ean. Hilabete batzuk zaharxeago zen.

ZUGARRAMURDI

Kaperaren teilatua berritzen ari dira

KORO ETA MARGARI

Orainarte zuen zimentatzko teilatuaren ordez, zurezkoa paratzen ari dira eta kaperaren itxura arras aldatu da onera.

Kisulabeko mus txapelketa

Hamasei bikotek parte hartu zuten eta finalerako

Xerman-Aline eta Frantxis-ko-Juan Luis gelditu ziren. Finala azkeneko hauek irabazi zuten.

Argazki bat ere ateraia ginuen baina galdu zaigu. Ebatsi dakutela susmatzen dugu, bertan ageri zirenak itsusiskoak baitziren bainan lasai, FBI afera hunen ondotik dabil.



Hemendik aintzina, Arrosarioko Ama Birginaren kaperaren itxura orain artekoa baino aisa politagoa izanen da.

ALBAITARITZA S.A.

Aita Donostia 7 Tfnoa: 452111 - Faxe: 580980
ELIZONDO

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- **URDAZUBI**

TALLERES
ZALDAIN

Santiago 71 ☎ 580166 - **ELIZONDO**


Zazpiak Bat elkartearen urteroko afaria

Otsailaren 27an izanen da Omordian eta nahi duen guziei zabaldua da

MIXEL ETA JACQUELINE

Azken urte hauetan ohi-dura den bezala, elkarteak urteroko afaria antolatu du heldu den otsailaren 27rako Omordian. Bistan dena, dantzari, kide, laguntzaile eta nahi duen guziei zabaldua dela eta bakotzak elkartearen lana sustengatzeko parada ederra duela. Hitz ordua 7etan finkatua da eta sukaldariak zera proposatzen dauku: eltzaria, paella «Joakin», ardi gasna, pastiza, kafea, kopa eta puroa. Guzia 80 liberetan (40tan 14 urtez pekoentzat). Arratsa Tote Michelena eta Eñaut Bidartek alaituko dute.

Erran gabe doa aintzine-



"Lehen-go gauzen azoka" Kirol aterpean izanen da ikusgai

Artxibo a

tik behar dela zuen izena eman lekuaren arrastatzeko, elkartearen arduraduneri deituz edo Herriko Etxeko Edantegian eta Tabako bulegoan erranez.

Lehen-go Gauzen Azoka

Orroitarazten dautzuetegu heldu den otsailaren 26, 27 eta 28an iragan behar dela Kirol aterpean "Lehen-

go gauzen azoka". Azpimarratu behar da Euskal Herrietik 30 bat erakusleek parte hartzen dutela (ikus *ttipi-ttapa* 103. zenbakia).

Saratarrak Bertsulari Ttiki egunean

Sarako bertso eskolako neska-mutilak parte hartu zuten Hendaia-ko Bertsulari Ttiki egunean, bertze 200 bat haur eskuldunen artean egun xoragarria iraganez. Bazkalondoan arien banatzea izan zen eta saratarrak hiru sari ardietsi dituzte, baita hamar bat aipamen.

Duela bi urte hasi ziren eskolan bertsoetan, Ana Marie Curutchet erakaslea eta Alkat bertsulariarekin.



«ZALDUBI»
SUKALDE
MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 58 05 62
IRURITA - BAZTAN

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Michel eta Kaitz
Guendicain

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA




ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI



Era guztietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

EZKONTZAK

Patxi Erdozain Rived eta **Edurne Ariztia Plaza**, Ituren eta Urdazubikoa, otsailaren 20ean.

JAIOTZAK

Aritz Lezea Gragirena, Leitzakoa, otsailaren 5ean

Julen Olano Zabaleta, Leitzakoa, otsailaren 8an.

Joanes Lasarte Arruza, Leitzakoa, otsailaren 9an.

Ohiane Arizmendi Apezetxea, Oronoz-Mugairikoa, otsailaren 8an.

Joseba Arizmendi Apezetxea, Oronoz-Mugairikoa, otsailaren 8an.

Xabier Urtasun Eraso, Iruritakoa, otsailaren 1ean.

Ione Maia Dagerre, Elizondokoa, otsailaren 3an.

Rakel Agirre Mindegia, Donamarian, otsailaren 10ean.

Miren Ariztegi Agerrebere, Urrotzen, otsailaren 8an.

Martxel Arrivillaga Indaburu, Berakoa, otsailaren 9an.

HERIOTZAK

Eleuterio Etxenike Fagoaga, Zugarramurdin, urtarrilaren 5ean, 83 urte.

Paulina Arregi Urkiola, Leitzakoa, urtarrilaren 11an, 78 urte.

Modesta Aleman Etxenike, Azpilkuetakoa, otsailaren 8an, 82 urte.

Saturnino Maia Mariezkurrena, Oronoz-Mugairikoa, otsailaren 15ean, 25 urte.

Clara Iribarren Galainena, Urdazubikoa, otsailaren 12an, 98 urte.

Roman Soria Ariztegi, Etxalarren, otsailaren 17an, 72 urte.

Bautista Iparragirre Larralde, Etxalarren, otsailaren 18an, 82 urte.

Fco. Etxeberria Perurena, Donezteben, otsailaren 13an, 81 urte.

Jose Luis Urtxulutegi Galarregi, Donezteben, otsailaren 13an, 52 urte.

Jacinto Mayora, Donamaria Gaztelun, otsailaren 13an, 52 urte.

Tomasa Irisarri Dufurrena, Beintza-Labaien, otsailaren 16an, 32 urte.

Nikanor Elzaurdia Altzuguren, Beran, otsailaren 13an, 73 urte.

J. M. ANDUEZA IRIARTE

Instalazio elektrikoak

☛ *Sua itzaltzeko tresna guztiak*

- Mangerak
- Extintoreak
- Sua mozteko ateak: Rf-30, Rf-60, Rf-90. etab...

☛ **Alarmak:** Suarenak, lapurretarenak, gasarenak...

Askain Karrika 12 ☎ 630854 - **BERA**

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Tfnoa: 630735 - BERA Tfnoa: (943) 622305 - IRUN

TXOKOA OSTATUA

- × Eguneko menua
- × Asteburutan, kaxuelak eta karta
- × Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
- × Pintxoen espezialduak
- × Gazte giroa

Tfnoa: 630286, Altzate • **BERA**



Zonakoak ongi sokatira txapelketan

Euskalerrikoan lehen aldiz parte hartu zuten Nafarroako ordezkariak

Otsailaren 14ean burutu ziren Bizkaiko Getxo herrian Euskalerriko goma gaineko sokatira txapelketa, lehen aldiz Nafarroako ordezkarien parte hartzea izan zuena. Ordezkaritza hau, gainera, eskualdeko kirolariak bete zuten.

Honela, gizonaekoetan, 640 kilo azpiko mailan Bidasoa izenarekin parte hartu zuten Lesaka eta Basaburuako sokatiralariak, 9. postuan bukatuz.

Emakumezkoetan, berriaz, bi taldek parte hartu zuten 480 kilotik behitiko mailan; Bera eta Basaberri (Basaburu eta Berriozargo neskez osatua). Beratarrek izugarriko lana burutu zuten, hirugarren postuan bukatuz. Basaberrikoek aldiz, seigarren postuarekin konformatu behar izan zuten.



Mindegia gazteak ezin irabazi Senosiaineri

Hilaren 14ean ospatu zuten Donezteben, hainbat ikusmin sortua zuen aizkol apustua, Patxi Mindegia Zubietako gaztea eta Antonio Senosiain Olagueta-rraren artean, azken hau nagusitu zelarik.

Hasiera batean dirua Mindegiaren alde aterazen eta lehenbiziko enborretan

pronostikoak beteko zire-lazirudien, baina Senosiain pixkanaka nagusituz joan zen, 16 kanaerdikoak 39 minutu eta 49 segundutan ebakiz. Mindegiak 42 minutu eta 25 segundo behar izan zituen lan bera bukatzeko. 700 ikusle inguru izan ziren Doneztebe-ko eskolako frontoian.

Herri Kirol ikuskizunak herrira eramateko aukera Udalentzat

Nafarroako Herri Kirol federazioak aukera zabaldu die Herriko Etxeei, bestetan edo bertze edozein egunetan, beraien herrietara ikuskizunak edo txapelketak eramateko. Nafarroako txapelketa guztiekin batera, udalak berak antolatutako edozein exhibizio eraman daiteke, kirolariak harramanetan jartzea federazioaren arduraren izan ziteke.

Nafarroako txapelketaren bat (ez exhibizioak) kontratatu ahal izateko epea martxoaren 15ean bukatuko da. Txapelketen egutegiak eta aurrekontuak Herri Kirol federazioan aurki daitezke, nahi duen guztiaren esku.

BOTE - PRONTON

- **HERRI KIROL** federazioaren asanblada orokorra burutu zen hilaren 20an. Urte honetako ekitaldi egitarauaren berri eman zuten, bertzeak bertze.
- **BAZTAN** futbol taldeak liga honetako lehen partidoa galdu zuen joan den igandean. Modu honetara, 9 hila-betetako "ratxa" moztu da. Lastima.
- **ZUHAITZ** plantaketa Etxalarren eginen du aurtengoan herri kirol federazioak. Martxoaren 7an 800 bago eta 50 haritz sartuko dira Usategiata aldean.
- **SOKATIRAKO** "prestakuntza fisikorako" ikastaroa eginen da Larraintzarren martxoaren 13an, Nuarbe-ko entrenadorearen eskutik.

Hamabostaldiko jokaldiak



Berako nesken herri kirol taldea.

Hirugarren postua lortu zuten Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketan, 480 kilotik behitiko mailan, maila bikaina erakutsiz. Bertze ordezkariak ere ongi aritu ziren.

Aizkol apostuetako prezio izugarriak.

Senosiain eta Patxi Mindegiaren arteko aizkol apostua ikusteko 2.000 pezeta ordaindu beharra garesti xamarra iduritzen zaigu. Afizio handia behar da hori pagatzeko.

Herrian erosi edo kanpoan erosi

Aukera, prezioa edo hurbiltasuna kontutan hartzen dute erosle zein saltzaileek


Herrian erosi edo herritik kanpo erosi, hori da honetan planteatzen den ardatz nagusia. Gure eskualdean bertan, herritik herrira egoera dextente aldatzen da, noski. Herri ttikienetan janari dendak bakarrik egonen dira, kasu batzuetan ixten ari direnak, gainera.

Herri haundixkoenetan denda gehiago daude eta inguruko herrietan dagoen oinarrizko eskaria bete dezakete.

Halere, aunitzek hirietako bidea hartzen dute erosketak egiterakoan, batez ere asteburutan:

Leitzaldetik Tolosara, Baztanetik Iruñera edo Bortzirietatik Irunera eta Oiartzungo supermerkatuetara ohizko ibilbideak izaten dira.

Gorabehera hauen berri jakiteko erosle eta saltzaileen eritzia jakitea ere nahitaezkoa zen, eta hemen muestra ttiki bat bildu dugu.



Herrietako denda ttikiak eta etxez etxeko saltzaileek, «supermerkatuen» kompetentzia gero eta gehiago sufritzen dute

Eguneroko jatekoak eta bertze oinarrizko erosketak herrian egiten dira normalean, dendak izanez gero behinpein, batez ere hurbiltasuna kontutan hartuz. Dendarik ez badago, herri ttikietan eta baserri auzoetan, bi aukera dituzte; hurbilen dagoen herrira joatea edo etxez etxe ibiltzen diren saltzaileei erostea. Herri haundietan zenbait ohitura ere aldatu dira, supermerkatuen eragi-

nez. Lehen denda ttikietan egiten ziren erosketak «fuerteak» orain supermerkatuetan egiten ditu batez ere gazte jendeak. Edo kanpoan dauden denda erraldoietara joaten da jendea, kontutan hartu gabe prezioetan alde nabarmenik ez dagoela eta bertara joateko kilometrajea dextentea izaten dela. Ohitura hau kasu aunitzetan herritik ateratzeko aitzakia izaten da, hirietan pasiatzeko eta bertze zenbait gauza egiteko.

Bertze kontua izaten dira arropa, oinetakoak, liburuak, elektrogailuak eta horrelako erosgaiak. Normalean, herrietan ez da aukera haundirik izaten eta horregatik sarritan hirietara joaten dira erosleak.

Herrietako dendariak prozesu honi aurre egiteko dendetan zenbait aldaketa egiten ari dira, bai itxura hobetuz eta bai eskeintzen den aukera zabalduz.

Aitor AROZENA

SALTZAILEEI GALDEZKA



Jose M^o Hernandorena
Leitzako Ferreterikoa

«Aukera eskeini behar zaio erosleari»


- ▶ *Leitza bezelako herri batetan, zein denda klasek du etorkizun hobea, espezializatuak edo dibertsifikatuak?*
- ▶▶ Gauza bakar bat eskein ezin da aurrera atera. Erosleari aukera eskeini behar zaio, dudik gabe. Hemen dendan, gauza konkretu bat ez da bestea baino gehiago saltzen.



Ignacio Apeztegia
Doneztebeko Apeztegiakoa

«Hiper-ekin kompetitzen ikasi behar dugu»

- ▶ *Klienteen demandari erantzuteko zer eskeini behar da?*
- ▶▶ Ahal den guztia; dendaren erosotasuna, produktu aukera... Kalte handia egiten digute hipermerkatuek tamainu, aukera eta prezioetan. Guzi hori hemen ezin dugu eskeini, populazio ttikia baina 'perdido' haundiak egiteko.



Jose Luis Bergara
Berako Okane harategikoa

«Dendaren itxurak zure nortasuna erakusten du»

- ▶ *Itxura onak zenbat laguntzen du salmentan?*
- ▶▶ Jakin ez dakit, baina segur nago laguntzen duela. Oso inportantea da denda zure gustora prestatzea, horrek zure nortasuna adierazten baitu eta betiko modeloetik, nolabait ihes egiten duzu.



Casimiro Calvo
Etxez etxeko saltzailea

«Lanbide hau laister desagertuko da»

- ▶ *Dendan ala etxez etxe saltzen da gehiago?*
- ▶▶ Dendan gehiago. Baserrietan ibiltzen naiz bereziki eta han saltzen denaz aparte, baserritarak dendan erosten du.
- ▶ *Prezio ezberdinak izaten dira?*
- ▶▶ Berdinak dira eta zenbait gauza merkeago saltzen dut baserrietan.



Erosleek zer diote...

1. - Non egiten dituzu normalean erosketak (jatekoak, jantzekoak...)?
2. - Zergatik horrela?



Pilar Artola - LEITZA

1. Jatekoak beti herriko dendetan erosten ditut, ahal bada ofertan daudenean. Arropa arrunta ere (zapatak...) herrian baina elegantea kanpoan erosten dut.
- 2.- Aukera gehiago dago kanpoan erropa ezberdina aurkitzeko.



Kontxi Agerre - ALMANDOZ

1. Jatekoak normalean herrian eta jatekoak Iruñan egiten ditut.
- 2.- Jan kotuetan erraxagoa da horrela, eta zerbitzu-kalitatea ere ongi dago. Jantzietan berriz aukera gehiago aurkitzen da Iruñan eta merkeago eros daiteke.



M^o Jose Larraioz - OITZ

1. Jatekoak Donezteben erosten ditut eta jatekoak Iruñan.
- 2.- Egia erran horretara ohituratua nago. Izan ere Oitzen ez dago dendarik eta arropa kontuetan eta Iruñan aukera haundiagoa da aisa ere.



Paskual Rubio - LESAKA

1. Jatekoak normalean herrian egiten ditut. Jantziak Irunen edo Donostian.
- 2.- Aukera gehiago dago zuk nahi duzuna bilatzeko Irunen edo Donostian.

Patxi Oiartzabal: «UBren lan estruktura eta udal-gestioa goitik behiti aldatu beharra zegoen»


Baztango alkatea konforme dago, dena dela, udaleko gobernu taldearen gestioarekin

Patxi Oiartzabal Irigoien Elizondon sortu zen duela 47 urte. Bere aitaxia Berako albaiteroa izan zen 52 urtez eta aita ere albaiteroa izana da Elizondon.

Bera ordea medikua dugu eta gaur egun Virgen del Camino erresidentzian Hematologia zerbitzuko burua.

Hauxe da kargu politiko bat betetzen dueneko lehen aldia.

Azkeneko elezioen ondorioz EA, HB eta PSOEn artean sortutako udal-paktuak, Baztango alkatetzan jarri zuen legislaturan zehar lau ardatz nagusi dituen programa bat betetzeko: etxebizitza sozialak altxatzea, zona osorako azinda hiltegi berria egitea, dauden lantegiei laguntzeko industrialde bat antolatzea eta turismoa bultzatzea errekurtsio ekonomiko bezala.



«Astean hiru egunetako dedikazioa ematen diot alkatetzari eta hortaz gainera, kontzejalek deitzen nauten aldiro joaten naiz Elizondora»

ttipi-ttapa.—*Legislaturaren balorazioa egiteko oraindik abudo bada ere, zein da momentuko inpresioa?*

P. Oiartzabal.—Momentuz konforme gaude egindakoarekin nahiz eta UBkoek kompetentea naitzela dioten eta alkatetzari

denbora guti dedikatzen diodala erran. Puntu hau argitu nahiko nuke. Hau da, Elizondon nagoenean alkatetzari dedikatzen diodan denbora astean hiru egun osotakoa da, igandetan ere zerbait izaten baita beti, eta gero bertze bi arratsalde.

Hortaz gainera, egunen batean nere beharrik izanez gero etortzen naiz baita.

ttipi-ttapa.—*Lanerako estruktura aldatu duzuela zioen baita Santiago Ustarrozek...*

P. Oiartzabal.—Halaxe da. Zegoen lan estruktura alda-

tzea izugarri inportantea baita guretzat. Hau da, UBren lan estruktura eta udal gestioa ona zela pentsatuko bagenu, ez ginateke horretan sartuko, arras kontent eta ordezkatuak sentituko bait ginen.


ttipi-ttapa.— *Nolakoa zen bada UBren lan estruktura?*

P. Oiartzabal.—Baztanen ohitura izan da betidanik bideak egitea eta gero hoiek pertsonifikatzea... «halako alkateak egin zidan bidea, bertze harek frontoia...» Eta kontua da hemen ez dagoela faborerik, obra gehienak Nafar Gobernuaren diruarekin egiten baitira.

Bertzalde, ez dakit zer erran nahi zuen Ustarrozek atentzio pertsonalaz aritu zenean. Herrietako alkate batek baino gehiagok aipatu dit sekulan ez dutela izan orain bezalako aukerarik aintzamentuan sartzeko. Beharbada bertze zerbait erran nahi zuen... eta tratu pertsonal bezala ulertzen dute zenbait pentsonei udal karguetan sartzea galeraztea edo... diru publikoa banaketxez aldatzea pertsona batzuk ikastolaren aldeko manifestazioetan parte hartzeagatik... enfin! guk ez dugu horrelako tratu pertsonalen aldekoak.

ttipi-ttapa.—*Eta gestioaren efikazia zertan dago?*

P. Oiartzabal.—Hori ere legegislatura akabatzean ikusiko da. Nolanahi, lehen baino gauza gehiago egiten ari garela uste dut. Beharbada jendeak ez du ezagutuko,



«Baztanen ohitura haundia izan da betidanik bideak egin eta gero horiek pertsonifikatzea»

izan ere, gauza pila auzolanetan egin baitira. Bide moldatze eta ormigoiztatzeak, Zozaiako urak... Hauek adibidez, hiru urte zeramaten urik gabe eta gu ailegatu eta bi hilabetez moldatu zen afera, UBren proiektuak zioenaren hiritik bata gastatuz gainera. Dena dela erran beharra dago ez garela guk nahi bezain efikazak, baina ezta ere UBkoek dioten bezain guti. Beraiek baino efikazagoak gara dudarik gabe.

ttipi-ttapa.—*Bukatze eta gauza zehatzagotara pasatuz, azkeneko hilabete honetan etxebizitza ofizialak eraikitzeke lehen fasea onartu du Udalbatzak. Ze komenta dezakezu honetaz?*

P. Oiartzabal.— Laister 48

«Oraindik ez dugu ikusi UBk proiektu bat bera ere udalbatzara eramaten, sikiera erdi mailako garrantzia duen proiektu bat bera ere.»

Ez dute inolako alternatibarik aukezten ezta beraien esku dagoen komisiotik ere, Bienestar Sozial edo Giza Ongitasuneko komisiotik, alegia»

etxebizitza eraikiko direla eta 1985az geroztik UBkoek bazutela honelako etxebizitza egiterik bainan ez zutela egin eta seguraski beraien arrazoiak izanen dituzte. Orain konforme daudela diote baina aukera zutenean ez zuten deus egin. Nolanahi hau lehen fasea litzateke eta etorkizunean pentsatua dago etxe gehiago egitea bertze herrietan. Honek zer erran nahi du? Ba 48 familietara itzuli behar ez diren hirurogeitapiko milioi emanen zaizkiela Gobernutik eta 23 urtetan bertze 260 milioi kreditutan ordaindu behar ez dutenak. Honetan neurtzen ahal da gestioa, ezta?

Testua: Joxemanuel IRIGOIEN
Argazkiak: Aitor AROZENA

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **Beran** 90 m²ko pisua salgai, 15 m²ko buhardilla eta 10 m²ko garaje tikiarekin. ☎ 630272.

• **Baserri** baten alokairua 30-40.000 pzta artean ordainduko nituzke. ☎ 451518.

• **Donezteben** 104 m² erabilgarriak dituen pisua salgai 7 milioietan. Bista onak. ☎ 585051 - 247280.

• **Etxebizitza** eta lantokia 25 milioitan salgai. Pentsio eta apopil etxea, martxan dagoena. ☎ 94-4159283 (Josean).

• **Beran** pisua salgai Kanttonberrin. ☎ 630485.

• **Lesakan** pisua eta 200 m²tako bajera salgai. Leku industrialia. Nahi izanez gero guztia edo bertzenaz zatika. ☎ 637872.

• **Pisua** amueblatua alokatzen da Beran, garaje eta terrazarekin. ☎ 630217.

Salerosketak

• **Sukalde**-kaldera kale-fakziorako salgai. ☎ 631193 (7etatik aintziner).

• **Ford Fiesta** 1400 salgai 400.000 pezetatan. ☎ 637872.

• **Setter** ingeles txakurrrak salgai (oso onak oilagor ehizarako). ☎ 302045 (5etatik 7tara). Mikel.

• **Opel Rascal** furgoneta isotermaorekin prestatua, NA-AB salgai. ☎ 510467.

• **Alfa Laval** ordeñadora salgai, modu eta prezio onean. ☎ 634133.

• **Opel Corsa** NA-S salgai. Egoera onean dago. ☎ 630733.

• **Baserri** eta etxeetako mobleak, kuadroak eta aintzinarako gauzak erosten ditut. ☎ 451518.

• **Kotxea** aldatu nahi baduzu aukera ederra duzu. Mota guzietako kotxe usatuak salgai. ☎ 581023 (Jabier).

• **Bi urtetako esnebehi** nabarra eta 386 litrotako **esne tankea** salgai Labaien. ☎ 450980.

• **Husqvarna** motoa 430 z.k.koa salgai (NA-AC). ☎ 580925 (Josemanuel gaeuz).

• **Sava Pegaso** furgoneta NA-L salgai, ITV pasatu berria. ☎ 627622 (goizeko 12etatik aintziner).

• **200 belar** fardo salgai. ☎ 615124.

• **Ford Fiesta** NA-K matrikulakoa salgai prezio onean. ☎ 630477 (gaeuz).

• **Esne tankea** 600 litrotakoa berri berria salgai Uitzin. ☎ 510498.

• **Bainuko** manpara ispiluekin salgai 25.000 pztatan (1,40 x 0,70). Egoera onean. ☎ 943-611721.

• **Artzai-txakurra**, ahal baldin bada arra, erosiko nuke. ☎ 945-162905 edo 945-221205 (Iñaki).

• **Behi**, aretxe eta bildotsak erosten ditut. ☎ 450160 eta 450042.

Denetarik

• **Lesakan** toki onean denda traspasatzen da. Deitu 637401 ☎ra.

• **Ingelesklaseak** ematen dira. Merkeak, esperientziaduna. ☎ 637095 (Mikel).

Harremanak

• **Zubietako** Patrisirentzat zorionak zure urtebetetzean eta ondo pasa dezazun espero dugu. Seme-alabak.

• **Urdazubiko** gazteei: urtariletik martxorat urteak betetzen dituztenentzat, andana bat izanez, zorionak. Taldeko lagunentzat partetik.

• **David** Mindegiaren oroimenez: David nahiz eta zu gehiago ez ikusi, ez zaitugu atzenuko. Beti izanen duzu leku bat gure bihotzetan. Elizondoko lagunak.

• **Berako** J.A.E.rentzat, zorionak zure familiaren partez, eta lasai, ez zarela hain zaharra, oraindik 54 urte dituzu.

• **Elizondoko** M^ñ Carmen Mugirorentzat zorionak zure 16. urtebetetzeagatik, lagunentzat partez.

• **Iruitako** Pello O.ri (bien, bien) zure urtebetetze egunean, ea zuk ehizatutako basurde bat jatera gonbidatzen gaituzun. Rakel, Amaia, Ainhoa, Marta, etab...

• **Urdazubiko** Arantxa C. zorionak zure 13. urtebetetzean eta muxuak. Zure lagun bat.

• **Aresoko** Leireri bere urtebetetzean (otsailak 26) zorionak, zure guraso eta anaien partetik.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!


IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA Tfnoa:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



OCASO, S. A.

*Jose Susperregi Etxepeteleku,
Iruñako **SEGUROS OCASO** agentziaren ordezkaria eta
MALDAERREKA S.A.ren gerentea denak, bere klienteei
jakinarazi nahi die, hemendik aintzinerara bi aseguro berri
jartzen dituela zuen esku, dudarik gabe interesgarri gertatuko
zaizuenak:*

OCASO arrisku aunitzetarako familia aseguru

Funeraria zerbitzuen eskeintza, aseguratu en hilobiratzea edo errausterako beharrezkoak diren tramite, gestio eta gastuak barne daudela.

URREZKO OCASO

- Heriotza ondoko zerbitzua.
- Heriotz - elbarritze istripuak.
- Bidai asistentzia (herrialdetik kanpoko).
- Asistentzia integrala (barne).
- Familia mailako erantzukizun zibila.
- Muga gabeko mediku asistentzia
- Eritetxeratu beharko balitz eguneroko laguntza eskeiniz.

ASEGURO INTEGRALEN KONTZEPTU BERRI BAT

BITTIRIA KARRIKA 6, BEHEA - **LESAKA** Tfnoa: 637404



ASESORIA
ASEGUROAK
GESTORIA

GESPAM, S. L.

M^o JOSE DEL MORAL ARIZTEGI

Gure Asesora ELIZONDO

- Nominak, TC₁ eta TC₂, erretentzioak, ziurtagiriak, kontratoak eta dirulaguntzak, lan inspektzioak...
- Informatizatutako kontabilitatea, itxiera kontablea, liburuen legalizazioa, analisi edo interpretazio kontablea...
- Deklarazioak (IVA, errenta, elkarteak) eta Haziendaren aintzinean tramiteak.
- Elkarteen Osaketa, lizentzia fiskalak, Erakunde Zentsuaren aintzinean tramiteak eta Erregistroak...
- Aseguro mota guztiak: kotxea, etxebizitza, merkatal etxea, industria, bizitza...
- Ibilgailuen transeferentziak eta bajak, Garraio txartelak, gidatzeko baimenen berritzeak, ziurtagiriak, lizentziak...

MENDINUETA 12

ELIZONDO


Tfnoa eta Faxa: 452192

ttipi-ttaparen 92 urtekaria
URTE OSOA LIBURU BATEAN BILDUA

- ▶ Urteko berririk garrantzitsuenak herriz herri
- ▶ Elkarrizketak eta eritziak
- ▶ Erreportaiak
- ▶ Mahai-inguruak
- ▶ Eskualdeko kirolei errepasso zabala
- ▶ Telefono Agenda bete betea

ttipi-ttaparen 92 urtekaria

Herri guzietan salgai dago



% 40a bitarteko deskuentoak KONPLEMENTOTAN

**ALMACENES
 ETXANIZ, S.A.**

Lesakako Iturria anaiak

ESKEINTZA BEREZIAK

Armairu lakatua
 + lababoa + grifoa + ispilua
 Guztia, 28.500 pztatan
 BEZ barne

ZURE BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA:

- | | |
|-------------|---------------|
| x MOBLEAK | x AZULEJOAK |
| x GRIFERIAK | x SANITARIOAK |
| x MANPARAK | x OSAGARRIAK |

*Premiuek
 Konpromisirik
 gabe*

Juan Arana, 3
 Tfnoa eta faxa: (943) 611767
IRUN